

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE  
CREDITOREN KONTSEILU ERREKTOREAREN  
ARAUDIA**

2016ko apirilaren 29

## AURKIBIDEA

<b>I. TITULUA - SARRERA .....</b>	<b>4</b>
1. Artikulua - Xedea	4
2. Artikulua - Aplikazio-eremua eta zabalkuntza	4
3. Artikulua - Onartzea, aldatzea eta interpretatzea	4
<b>II. TITULUA - KONTSEILU ERREKTOREAREN EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK .....</b>	<b>5</b>
4. Artikulua - Kontseilu Errektorearen eginkizun orokorrak	5
<b>III. TITULUA - KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK .....</b>	<b>7</b>
5. Artikulua - Kontseilu Errektorearen osaera kuantitatiboa	7
6. Artikulua - Kontseilu Errektorearen osaera kualitatiboa. Kideen egokitasuna	7
<b>IV. TITULUA - KONTSEILU ERREKTOREAREN EGITURA .....</b>	<b>8</b>
7. Artikulua - Kontseilu Errektoreko Lehendakaria	8
8. Artikulua - Kontseilu Errektoreko Lehendakariordea	9
9. Artikulua - Kontseilu Errektoreko Idazkaria	9
10. Artikulua - Ikuskaritza-Batzordea	10
11. Artikulua - Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea	12
11.bis Artikulua - Arriskuen Batzordea	15
<b>V. TITULUA - KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIONAMENDUA ..</b>	<b>17</b>
12. Artikulua - Bilkurak	17
13. Artikulua - Bileren garapena	17
<b>VI. TITULUA - KONTSEILARIAK IZENDATU ETA KARGUA UZTEA .....</b>	<b>18</b>
14. Artikulua - Kontseilariak izendatu	18
15. Artikulua - Kontseilariak hautatu	18
16. Artikulua - Kontseilariak berraukeratu	19
17. Artikulua - Karguaren iraunaldia	19
18. Artikulua - Kontseilariak kargua uztea	20

<b>19. Artikulua - Bozketen objektibotasuna eta sekretua</b>	<b>21</b>
<b>VII. TITULUA - KONTSEILARIAREN INFORMAZIOA .....</b>	<b>21</b>
20. Artikulua - Informatu eta aztertzeko gaitasunak	21
21. Artikulua - Adituen aholkularitza	22
<b>VIII. TITULUA - KONTSEILARIAREN ORDAINSARIA .....</b>	<b>22</b>
22. Artikulua - Kontseilariaren ordainsaria	22
<b>IX. TITULUA - KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK.....</b>	<b>23</b>
23. Artikulua - Kontseilariaren betebeharrak orokorrak	23
24. Artikulua - Kontseilariaren konfidentziasun-betebeharra	23
25. Artikulua - Lehiarik ez egitearen betebeharra	24
26. Artikulua - Interes-gatazka	24
27. Artikulua - Aktibo sozialen erabilera	25
28. Artikulua - Publikoa ez den informazioa	25
29. Artikulua - Negozio-aukerak	25
30. Artikulua - Zeharkako eragiketak	25
31. Artikulua - Kontseilariaren informatzeko betebeharra	25
32. Artikulua - Gardentasun-printzipioa	26
33. Artikulua - Kontseilarien erantzukizuna	26
<b>X. TITULUA - KONTSEILUAREN HARREMANAK .....</b>	<b>26</b>
34. Artikulua - Harremanak bazkideekin	26
35. Artikulua - Harremanak publiko zabalarekin	27
36. Artikulua - Harremanak ikuskatzaileekin	27

\* \* \* \* \*

## I. TITULUA - SARRERA

### 1. Artikulua - Xedea

Kontseilu Errektorearen Araudi honek (aurrerantzean "Araudia") CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITOren (aurrerantzean, "Entitatea", "Kooperatiba" edo "LABORAL Kutxa") administrazio hobea bermatzeko neurriak biltzen ditu, Legeriarekin, Estatutu Sozialekin eta Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta haien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozedurarekin bat. Bertan zehazten dira Kontseilu Errektoreak jarduteko printzipioak, beraren antolamendu- eta funtzionamendu-arauak, Kontseiluko kideen jokabide-arauak, bai eta euren jardunbidea zuzenduko duten printzipio orokorrak ere.

Funtsean, honako printzipio orokor hauek hartu ditu Kontseilu Errektoreak Entitatea gobernatzeko:

- efizientzia
- erantzukizuna
- gardentasuna
- leialtasuna
- egokitasuna
- sekretua
- fidelitasuna
- independentzia

Orain formalizatzen diren printzipio horiek izaera irekia dute eta Entitatearen Kontseilu Errektorearen osoko bilkuraren erabakiz aldatu ahal izango dira, baldin eta indarrean dagoen Legeriaren, Estatutu Sozialen eta Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta haien egokitasuna Ebaluatzeko Prozeduraren Gidaliburuaren aurka ez badoaz.

### 2. Artikulua - Aplikazio-eremua eta zabalkuntza

Araudi hau Kontseilu Errektoreari, Batzordeei eta Kontseilu Errektoreko eta Batzordeetako kideei aplikatuko zaie. Horretarako, Kontseiluko Idazkariak ale bana emango die horiei guztiei.

### 3. Artikulua - Onartzea, aldatzea eta interpretatzea

Araudi hau Kontseilu Errektoreak onartu behar du, kideen gehiengoaren adostasunarekin.

Lehendakariak edo hiru kontseilarik aldatzeko eskaera egin ahal izango dute, baina justifikazio-memoria bat aurkeztu beharko dute eskaerarekin batera. Araudia aldatu eta balioa izateko, bildutako kontseilarien hiru herenek horren alde agertu beharko dute.

Kontseilu Errektoreak erabakiko du noiz sartuko diren indarrean Araudia nahiz ondorengo aldaketak. Horren inguruan ezer zehatzik erabaki ezean, Araudia onartzeko edo aldatzeko erabakiak jasotzen dituen akta berretsi bezain laster sartuko da indarrean.

Aplikatu beharreko legezko eta estatutuzko arauekin bat interpretatuko da Araudi hau.

## **II. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK**

### **4. Artikulua - Kontseilu Errektorearen eginkizun orokorrak**

1. Kontseilu Errektorea Kooperatibaren gobernurako, kudeaketarako eta ordezkartzarako kide anitzeko organoa da, eta beraren zeregina da, gainera, zuzendariak gainbegiratzea. Xede sozialari lotutako egintza guztietara hedatzen dira haren ordezkartza-ahalmenak. Legearen edo Estatuaren arabera beste organo sozialentzat erreserbatuta ez dauden ahalmenak erabiltzeko eta jardunbide orokorrak zehazteko ahalmena du. Bere jardunean, baina, Legearen, Estatuaren, aplikatu beharreko gainerako araudiaren eta Batzar Nagusiak zehaztutako politika orokorraren menpe arituko da.
2. Kooperatibaren jardura arrunta Zuzendaritza Nagusiaren esku uztea eta ikuskaritzako eta kontroleko eginkizun orokorrean zentratzea da Kontseiluaren politika.
3. Ez ditu eskuordetuko, ordea, legeak Kontseiluaren eskumen eskusibotzat jotzen dituen ahalmenak, zuzenean ezagutzeko erreserbatuta dituenak, edota ikuskaritzako eginkizun orokorra arduraz gauzatzeko ezinbestekoak dituenak.
4. Azken ondorio horietarako, Kontseiluak zuzenean erabili beharko ditu honako ardura hauek:
  - Kooperatibaren estrategia orokorrak onartzea;
  - Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta haien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozeduraren Gidaliburutik ondorioztatzen direnak;
  - Zuzendari Nagusia izendatu, ordainsaria erabaki eta, hala balitz, kargutik kentzea, Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeak aurretiaz txostena emanda;

- barne-kontrolerako eta -informaziorako sistemak ezarri eta horien jarraipena egitea;
  - Ohiko Batzar Nagusiaren aurrean ekitaldiko urteko kontuak, gestio-txostena eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamena aurkeztea;
  - eta, oro har, Kooperatibaren aktibo garrantzitsuak erabiltzea dakarten eragiketak eta sozietate-eragiketa handiak.
5. Kooperatibaren Xede Soziala betez, Kontseiluak zehaztu eta berrikusiko ditu enpresa- eta finantza-estrategiak, betiere honako hauek kontuan izanik:
- Kooperatibaren plangintza zehazten denean, oinarri sozialari zerbitzu egokia eskaintzea izan behar dela helburua, horrekin batera irabazi ziurrak eskuratuz eta Kooperatibaren epe luzerako fluxuak maximizatuz.
  - Inbertsio-proiektu berriak erabakitzen direnean, errendimendu egokia eskuratzea izan behar dela helburua, betiere Kooperatibaren kapital-kostua kontuan izanda.
  - Kooperatibaren eragiketa guztiak etengabe berrikusi behar direla, kostuan eraginkorrak izan daitezzen.
  - Kooperatibaren Heziketako eta Sustapeneko Fondoari egindako hornikuntzak egoki banatzearen garrantzia, Kooperatibaren oinarri sozialaren beharrianak bete eta lurraldearen garapenari arreta berezia eskaintzeko moduan.
6. Antolamendu korporatiboaren esparruan, Kontseiluak honako hauek ziurtatzeko behar diren neurriak hartuko ditu:
- Zuzendaritzak Kooperatibaren Xede Soziala betetzea duela helburu, eta hori horrela izateko motibazio egokia duela;
  - Kooperatibaren Zuzendaritza, Kontseiluaren gainbegiratze efektiboaren pean dagoela;
  - pertsona edo talde txiki batek ere ez duela bere esku beste kontrapisu edo kontrol batzuen menpe ez dagoen erabakialhalmenik;
  - bazkide batek ere ez duela jasotzen lehentasunezko traturik gainerakoan aldean.
7. Kontseilu Errektoreak zaindu behar du Kooperatibaren Xede Soziala beteko dela, zuzenbideak agindutako betebeharrak errespetatuz, langile, gordailugile, hornitzaile, hartzekodun eta bezeroekin egindako hitzarmen esplizitu eta inplizituak betez, eta, oro har, negozioen jarduera arduratsuak dakartzan betebeharrak etikoak zentzuz gordez.

### III. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK

#### 5. Artikulua - Kontseilu Errektorearen osaera kuantitatiboa

1. Estatutu Sozialen lehen xedapen iragankorrean zehaztutakoari kalterik eragin gabe, Kooperatibaren Kontseilu Errektoreak gutxienez 12 eta gehienez 13 kide titular izango ditu. Azken kasu horretan, hala balitz eta legez Kooperatibak legez horretarako derrigorra izango balu, kontratu mugagabea duen Kooperatibako langile bat izango da 13. kidea, betiere beste erakunde bateko langile aktiboa ez bada. Kide horrek gainerako kontseilarien agintaldi eta erregimen berbera izango du, eta kooperatibaren araudian jasota dagoen bezala aukeratu eta kenduko da kargutik. Kontseilariekin batera ordezeko sei kide izendatuko dira, baldin eta kontseilarien artean behin betiko hutsunerik gertatuko balitz, estatutuaren arabera falta den denboran leku hori betetzeko.

Lau kide titular eta bi ordezeko lan-bazkideen artean aukeratu beharko dira ezinbestez. Kontseilu Errektoreko gainerako zortzi kontseilari titularrak eta lau ordezkariak gainontzeko bazkideen artean aukeratuko dira.

2. Batzar Nagusiak aukeratuko ditu kontseilari titularrak nahiz ordezkariak, bozketa sekretuan eta botorik gehien jasotzen dituztenen artean.
3. Kontseilaria pertsona juridikoa izanik, pertsona juridiko horrek pertsona fisiko bat izendatu beharko du karguari lotutako eginkizunak betetzeko.

#### 6. Artikulua - Kontseilu Errektorearen osaera kualitatiboa. Kideen egokitasuna

1. Kontseilari guztiek zintzotasun komertzialeko eta profesionaleko pertsonak izan beharko dute, eginkizun horiek betetzeko ezagutza eta esperientzia egokiarekin, Entitatearen gobernu ona garatzeko prestutasunarekin, eta beren sozietate-eskubide guztiak izanik. Horretaz gain, Kreditu Kooperatibei buruzko maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak eta aipaturiko legea garatzeko Araudia onartzen duen urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuak eskaturiko baldintza guztiak ere bete beharko dituzte. Hala balitz, baldintza horiek guztiak bete beharko ditu langileak ordezkatzeko dituen Kontseilariak ere.
2. Kontseilu Errektoreko kideen egokitasuna baloratzeko, urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuaren 2. artikuluan zehaztutako irizpideak eta Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta haien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozeduraren Gidaliburuan jasotakoak errespetatu beharko dira.

## IV. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN EGITURA

### 7. Artikulua – Kontseilu Errektoreko Lehendakaria

Kontseilu Errektoreko Lehendakariak izango du Kooperatibaren legezko ordezkari, eta berak erantzun beharko du baldin eta beraren jardunean Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen erabakiak betetzen ez baditu.

Gauzak horrela, beraren eginkizunak izango dira:

- a. Bide judizialetan eta bestelako bideetan Kooperatibaren izenean aritzea egintza, negozio eta hitzarmen juridiko guztietan, bai eta beste era guztietako ekintza eta salbuespen guztietan ere.
- b. Parte hartzen duen organo sozialetako saio eta bilkura guztiak deitu eta zuzentzea, bertako eztabaidak bideratzea, eta desbideratzerik ez egoteko eta Batzarrari eguneko gai-zerrendan ez dauden erabakiak ez aurkezteko kontu egitea.
- c. Kontseilariak eguneko gai-zerrendan jasota dauden gaien inguruko informazio egokia garaiz jasotzen dutela zaindu eta bermatzea.
- d. Organo sozialen erabakiak betetzen direla zaindu eta bultzatzea.
- e. Sinadura soziala gauzatzea eta, bereziki, saioen aktak eta agiri sozialen inguruan argitaratzen diren egiaztagiriak sinatzea, Idazkariarekin batera.
- f. Kooperatibaren organo sozialek har litzaketan erabakiak gauzatzea, kontrako erabakirik ez badago.
- g. Larrialdirik balego, beharrezkotzat jotzen dituen premiazko neurriak erabakitzea. Kontseilu Errektoreari berehala eman beharko dio horren berri eta horrek berretsiko du erabaki hori egokia izan den ala ez, ez bada gai hori Batzarraren eskumena dela; kasu horretan, behin-behineko gutxieneko erabakiak baino ez ditu hartuko eta berehala deitu beharko du Batzar Nagusia, horien inguruko azken erabakia har dezan.
- h. Kontseilu Errektorearen Batzorde Ordezkariekin koordinatzea, aldiari aldi ebaluazioa egiteko.
- i. Izendapenen eta Ordainsarien Batzordea zuzentzea, betiere kontseilari ez-exekutibo izateko baldintzak betetzen baditu.
- j. Berak duen ordezkariaren ondorioz sor litekeen beste edozein.



## **8. Artikulua - Kontseilu Errektoreko Lehendakariordea**

Lehendakariordearen eginkizuna da Lehendakaria ordezkatzea, azken hori kanpoan, gaixorik edo ezinduta dagoenean. Bereak izango dira, era berean, Kontseilu Errektoreak edo Lehendakariak agintzen dizkioten gainerako eginkizunak ere.

## **9. Artikulua - Kontseilu Errektoreko Idazkaria**

Idazkariaren eginkizuna da:

- a. Bilkuren eta bertan adostutako erabakien legezatasun formala eta materiala zaintzea.
- b. Bazkideen eta ekarpenen erregistro-liburuak prestatu eta zaintzea. Era berean, berak prestatu eta zaindu behar ditu Batzar Nagusiaren, Kontseilu Errektorearen eta, hala balitz, parte hartzen duten gainerako organoen aktak ere.
- c. Saio bakoitzaren akta idaztea. Bertan jasoko ditu, gutxienez, erabakiak hartu diren tokia eta data, partaideen eta ordezkatuak kopurua, lehen edo bigarren deialdian egin den, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan jasotzea eskatu diren parte-hartzeak, adostutako erabakiak eta bozketen emaitza.
- d. Lehendakariaren sinaduraz baimendutako egiaztagiriak ematea, hala balitz, horri lotutako liburu eta agiri sozialen aipamena eginez.
- e. Entitateak bereganatu dituen gobernu onari buruzko gomendioak betetzen direla zaintzea.
- f. Kontseilarien jarduera zaintzea, honako hauek bete daitezten:
  - Aplikatu beharreko lege eta araudien letraren eta izpirituaren arabera jokatzeko dutela.
  - Entitatearen Estatutu Soziala eta barruko araudia errespetatzen dituztela.
  - Korporazioaren gobernu onari buruzko gomendioak kontuan hartzen dituztela
- g. Karguari lotutako beste edozein eginkizun.

Kontseiluaren osoko bilkurak izendatuko du Kontseiluko Idazkaria eta, hala bada, berak kenduko du kargutik.

## **10. artikulua - Ikuskaritza Batzordea.**

1. Kontseilu Errektoreak Ikuskaritza Batzordea eratuko du bere baitan. Kontseilu Errektoreak berak erabakiko du zenbat kontseilarik osatuko duten Batzordea, baina gutxienez hiru izango dira, eta direnak direla ere, betiere kontseilari ez-exekutiboak izango dira. Izendapenak erabakitzeko, kontuan hartuko dira Batzordearen eginkizunak eta kideen ezagutza, gaitasunak eta esperientzia. Ikuskaritza Batzordeko kide gehienak independenteak izango dira.
2. Kontseilu Errektoreak kide independenteen artean hautatuko du Batzordeko lehendakaria, eta lau urtean behin ordeztu egin beharko da. Lehendakari hori berriro hautatu ahal izango da, kargua utzi eta urtebete igaro ondoren.
3. Ikuskaritza Batzordeak honako eskumen hauek izango ditu gutxienez:
  - a. Batzordean aztertu diren bere eskumenerako gaien berri ematea Batzar Nagusiari.
  - b. Kontu-ikuskariek edo ikuskaritza-sozietateak izendatzeko proposamenak aurkeztea Kontseilu Errektoreari, betiere Entitatean ezarri beharreko araudiarekin bat, gero Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari aurkeztu eta azken horrek onar ditzan.
  - c. Sozietatearen barne kontrolaren (hau da, funtzionalki Batzordearen menpe dagoen barne-ikuskaritzaren) eta arriskuak gestionatzeko sistemen eraginkortasuna gainbegiratzea. Ildo beretik, kontu-ikuskariek edo ikuskaritza-sozietateekin eztabaidatzea ikuskaritza egitean barne-kontrolerako sisteman aurkitutako ahultasun esanguratsuez.
  - d. Araututako finantza-informazioa prestatzeko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.
  - e. Kontu-ikuskariekin edo ikuskaritza-sozietateekin harremanetan egotea, beraien independentzia arriskuan jar lezaketen gaien inguruko informazioa, kontuen ikuskaritza-prozesuari lotutako beste edozein gairen ingurukoa eta kontu-ikuskaritzari buruzko legerian zein ikuskaritza-arauetan aurreikusita dauden jakinarazpenak jaso eta Batzordeak aztertzeko. Nolanahi ere, urtean behin kontu-ikuskatzaileek eta ikuskaritza-sozietateek idatziz bermatu beharko diote zuzenean edo zeharka haiekin zerikusia duten erakundearekiko edo erakundeekiko independenteak direla. Ildo beretik, ikuskatzaile edo sozietateek nahiz beraiei atxikitako pertsonak edo erakundeek aipaturiko erakunde horiei emandako zerbitzu osagarriari buruzko informazioa eman beharko diote, Kontu Ikuskaritzari buruzko uztailaren 12ko 19/1988 Legeak xedatutakoarekin bat.

- f. Urtean behin, eta kontu-ikuskaritzari buruzko txostena kaleratu aurretik, kontu-ikuskeri edo ikuskaritza-sozietateen independentziari buruzko iritzia emateko txostena idaztea. Edozein kasutan, aurreko atalean aipatu dugun zerbitzu osagarriak emateari buruzko iritzia eman beharko du txosten horretan.
  - g. Jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboko arauak betetzen direla gainbegiratzea.
4. Ikuskaritza Batzordea egoki deritzon bestetan bilduko da lehendakariak deituta, dela beraren ekimenez, dela edozein kideek eskatuta. Kideek pertsonalki joan behar dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik.
- Zuzendari nagusiak Batzordeko bileretan parte hartzeko aukera izango du, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe. Gainera, Batzordeak barneko kontu-ikuskaritzaz arduratzen den pertsona bilerara joatea eskatu ahal izango du, eta, pertsona horrek nahitaez eman beharko dio laguntza eta eskatzen dion informazioa. Ildo beretik, Batzordeak zuzendaritza-taldeko edozein kideri, Kooperatibako edozein langileri edota kontu-ikuskeriei eskatu ahal izango die bileretan parte hartzea.
5. Batzordea arauz osatuta geldituko da kideen erdia baino gehiago agertzen direnean. Batzordeko kideek boto bana izango dute eta emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak. Batzordeak saioen aktak egin eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango dio Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaien kasuan.
6. Aurreko ataletan agertzen ez diren kontuetan, Kontseilu Errektorerako ezarritako funtzionamendu-arauak ezarriko dira, analogiaz. Era berean, eta artikulua honetan zehaztutakoari kalterik egin gabe, Ikuskaritza Batzordeak araudi propioa izateko aukera du, Batzordeak berak proposatuta eta Kontseilu Errektoreak onartuta. Araudi horretan garatu eta zehaztuko dira funtzionamendu-arauak.

## **11. artikulua – Izendapen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea.**

### **a) Bi batzordeotarako araubide erkidea**

1. Kontseilu Errektoreak Izendapen Batzorde bat eta Ordainsarien Batzorde bat eratuko ditu bere baitan, kontseilari ez-exekutiboz osatuta. Kideen heren batek gutxienez, eta Kontseilu Errektoreak izendatutako bi batzordeotako lehendakariak betiere, kontseilari independenteak izateko baldintzak bete beharko dituzte. Kontseilu Errektoreak erabakiko du zenbat kontseilarik osatuko duten Batzorde bakoitza, baina hiru izango dira gutxienez.
2. Batzordeak egoki deritzen bestetan bilduko dira lehendakariak deituta, dela beraren ekimenez, dela edozein kidek eskatuta. Kideek pertsonalki joan beharko dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik.
3. Batzordeak arauz eratuta geldituko dira bilerara kideen erdia baino gehiago agertzen direnean. Batzordeetako kideek boto bana izango dute eta emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.
4. Batzordeek bilkuren aktak egin eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango diote Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaien kasuan.
5. Entitatean bere zereginari lotutako eginkizunak betetzen dituzten pertsonak bileretara joatea eskatu ahalko dute Batzordeek.
6. Aurreko ataletan agertzen ez diren kontuetan, Kontseilu Errektorera ezarritako funtzionamendu-arauak ezarriko dira, analogiaz. Era berean, eta artikulua honetan zehaztutakoari kalterik egin gabe, Batzordeek araudi propioa izateko aukera dute, Batzordeek beraiek proposatuta eta Kontseilu Errektoreak onartuta. Araudi horretan garatu eta zehaztuko dira funtzionamendu-arauak.

### **b) Izendapen Batzordea**

1. Hona Izendapen Batzordearen eginkizunak:

- a. Kontseilu Errektorean hutsik geldituko diren lekuak betetzeko hautagaiak aurkitu eta gomendatzea, ondoren Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiak onartzeko.
  - b. Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunen, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea eta izendapen zehatz baterako behar diren eginkizun eta gaitasunen deskribapena prestatzea. Gainera, postu hori betetzeko aurreikusten den lanaldia ere baloratu beharko du.
  - c. Aldian-aldian, eta gutxienez urtean behin, Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, osaera eta jardunbidea ebaluatzea, eta egin litezkeen aldaketen inguruko gomendioak ematea berari.
  - d. Aldian-aldian, eta gutxienez urtean behin, Kontseilu Errektoreko kideen eta Kontseiluaren beraren egokitasuna ebaluatzea, eta Kontseilu Errektoreari horren berri ematea.
  - e. Aldian-aldian, Kontseilu Errektoreak Goi Zuzendaritzako kideak hautatu eta izendatzeko jorratzen duen politika aztertzea eta horren inguruko gomendioak ematea.
  - f. Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Hautatu eta horien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozedurari buruzko Eskuliburuan esleitzen zaizkion eginkizunak.
  - g. Kontseilu Errektorean ordezkari txikiena duen sexuak izan beharreko gutxieneko ordezkariaren inguruko helburua finkatzea eta, helburu hori betetzeko, ordezkari txikiena duen sexuko pertsona kopurua handitzeko orientazioak egitea.
  - h. Gainera, indarreko legerian nahiz Estatutu Sozialetan zehaztutako gainerako eginkizunak eta Kontseilu Errektorearen erabakiz esleitu ahal zaizkionak ere bete beharko ditu.
2. Bere eginkizuna betetzean eta ahal duen heinean, Izendapen Batzordeak etengabe izango du kontuan pertsona batek edo pertsona talde txiki batek ezin dituela inolaz menderatu Kontseilu Errektoreak hartzen dituen erabakiak, Entitate osoaren interesei kalte eginez.
  3. Izendapen Batzordeak bere eginkizunak ongi betetzeko egoki deritzon baliabideak erabili ahal izango ditu, kanpoko aholkularitza ere barne. Hala, horretarako behar dituen fondoak jasoko ditu.

4. Kontseilu Errektoreko kideen eta funtsezko langileen egokitasuna baloratu eta informatzeko ondorioetarako, Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Hautatu eta horien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozedurari buruzko Eskuliburuan oinarrituko da Batzordea.

**c) Ordainsarien Batzordea**

1. Hona Ordainsarien Batzordearen eginkizunak:
  - a. Entitatean ezarri beharreko ordainsari-politika orokorra proposatzea Kontseilu Erretoreari, eta azken horrek ordainsarien inguruan hartu beharreko erabakiak prestatzea, entitatearen arriskuan eta arriskuen gestioan ondorioak izango dituztenak barne.
  - b. Kontseilu Errektoreari “identifikaturiko kolektiboko” zuzendarien ordainsari-politikaren berri ematea, baita kontseilari izateagatik ordainsaria jasotzen dutenen, zuzendari nagusiaren eta horien parekoen ordainsari-politika orokorraren berri ere. Ildo beretik, Kontseilu Errektorean eginkizun exekutiboak betetzen dituzten kideen banakako ordainsarien eta kontratu-baldintzen berri ere ematea.
  - c. Urtean behin, ordainsarien politikaren aplikazioari buruzko ebaluazio independentea (kanpokoa nahiz barrukoa) egingo dela ziurtatzea.
  - d. Entitatean ezarritako ordainsari-politika egoki betetzen dela zaintzea, eta, aldian-aldian, “identifikaturiko kolektiboko” zuzendarien, kontseilari izateagatik ordainsaria jasotzen dutenen, zuzendari nagusiaren eta horien parekoen ordainsari-politika aztertzea.
  - e. Gainera, indarreko legerian nahiz Estatutu Sozialetan zehaztutako gainerako eginkizunak eta Kontseilu Errektorearen erabakiz esleitu ahal zaizkionak ere bete beharko ditu.
2. Erabakiak prestatzen dituzenean, Ordainsarien Batzordeak bazkide, inbertsiogile eta Entitateko beste alderdi interesdun batzuen epe luzerako interesak eta interes publikoa bera hartuko ditu aintzat.
3. Araudi aplikagarriak agintzen badu Kontseilu Errektoreak langileen ordezkariak izan behar dituela, Ordainsarien Batzordeak ere langileen ordezkari bat edo gehiago izango du.

### **11.bis. artikulua - Arrisku Batzordea**

1. Kontseilu Errektoreak Arrisku Batzordea eratuko du bere baitan. Kontseilari ez-exekutiboek osatuko dute, baldin eta entitatearen arrisku-estrategia eta arrisku-joera guztiz ulertu eta kontrolatzeko ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia badituzte. Kontseilu Errektoreak erabakiko du zenbat kontseilarik osatuko duten Batzordea, baina hiru izango dira gutxienez.
2. Kideen heren bat gutxienez, eta Kontseilu Errektoreak izendatuko duen lehendakaria betiere, kontseilari independenteak izango dira.
3. Arrisku Batzordeak honako eskumen hauek izango ditu gutxienez, eginkizun operatiboetatik aparte:
  - a. Entitateak gaur egun eta etorkizunean izan dezakeen arriskurako joera orokorraren eta horren inguruan duen strategiari buruzko aholkularitza ematea Kontseilu Errektoreari; ildo horretan, estrategia horren aplikazioan eta Entitateak dituen edo izan litzakeen arriskuak gestionatu, ikuskatu eta murrizteko politika zehatzetan laguntzea.
  - b. Bezeroei eskainitako aktibo eta pasiboen prezio-politikak enpresa-eredua eta entitatearen arrisku-estrategia kontuan hartzen dituela zaintzea. Hala ez bada, Arrisku Batzordeak egoera hori konpontzeko plana aurkeztuko dio Kontseilu Errektoreari.
  - c. Entitaterako arrisku garrantzitsu guztiak gestionatu eta ikuskatzeko aholkularitza ematea Kontseilu Errektoreari.
  - d. Arriskuak direla eta, estres-testari eta kapital-plangintzari lotutako aholkularitza ematea Kontseilu Errektoreari.
  - e. Arriskuak gestionatzeko eta barne-antolamenduaren eraginkortasuna ziurtatzeko baliabide egokiak esleitzen direla zaintzea.
  - f. Kontseilu Errektoretik erakundera eta erakundetik Kontseilu Errektorera arriskuen berri emateko informazio-bide eraginkorrak egongo direla bermatzea eta, Kontseilu Errektorearekin batera, Batzordeak berak nahiz Kontseilu Errektoreak arriskuen inguruko zer-nolako informazioa, zenbat, zer formatutan eta zer maiztasunekin jaso behar duten zehaztea.

- g. Aktiboen balorazioa, kredituen kanpo-kalifikazioen erabilera, arriskuei buruzko barne-ereduak eta funtzionalki Batzordearen menpe dagoen Arriskuak Gestionatzeko Unitatea gainbegiratzea.
- h. Zentzuzko ordainsari-politikak eta -jardunbideak ezartzen laguntzea. Horretarako, Arrisku Batzordeak aztertu egingo du ordainsari-sisteman aurreikusitako pizgarrien politikak arriskua, kapitala, likidezia eta etekinen aukera eta egokitasuna kontuan hartzen ote dituen, baina betiere lizendapenen eta Ordainsarien Batzordearen eginkizunari kalterik eragin gabe.

Gainera, indarreko legerian nahiz Estatutu Sozialetan zehaztutako gainerako eginkizunak eta Kontseilu Errektorearen erabakiz esleitu ahal zaizkionak ere bete beharko ditu.

- 4. Batzordea egoki deritzon bestetan bilduko da lehendakariak deituta, dela beraren ekimenez, dela edozein kidek eskatuta. Kideek pertsonalki joan beharko dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik.
- 5. Batzordea arauz osatuta geldituko da kideen erdia baino gehiago agertzen direnean. Batzordeko kideek boto bana izango dute eta emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak. Batzordeak saioen aktak egin eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango dio Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaien kasuan.
- 6. Batzordeak saioen aktak egin eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango dio Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaien kasuan.
- 7. Entitatean bere zereginari lotutako eginkizunak betetzen dituzten pertsonak bileretara joatea eskatu ahalko du Batzordeak.
- 8. Aurreko ataletan agertzen ez diren kontuetan, Kontseilu Errektorarako ezarritako funtzionamendu-arauak ezarriko dira, analogiaz. Era berean, eta artikulua honetan zehaztutakoari kalterik egin gabe, Batzordeak araudi propioa izateko aukera du, Batzordeak berak proposatuta eta Kontseilu Errektoreak onartuta. Araudi horretan garatu eta zehaztuko dira funtzionamendu-arauak.



## V. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIONAMENDUA

### 10. Artikulua - Bilkurak

1. Kontseilu Errektoreak hilean behin egingo du ohiko bilera. Dena den, aparteko deialdia ere egin dezake, lehendakariaren ekimenez edo kideetako bik, zuzendari nagusiak edo Kontseilu Sozialak (kide gehienek arrazoitutako eskaera eginez) eskatzen badute. Hamar egunetan eskaera horrek erantzunik jasotzen ez badu, eskaera egin duenak egin lezake deialdia, betiere Kontseiluaren heren baten babesa badu.

Deialdia ez da beharrezkoa izango baldin eta, Kontseilari guztiak bilduta egonik, aho batez Kontseilua biltzea erabakitzen badute.

2. Lehendakariak egingo ditu Kontseilu Errektorearen bileretarako deiak, aurreko atalean aurreikusitako kasuan izan ezik. Zuzendari nagusiari, Kooperatibako teknikariei eta gai sozialak egoki bideratzeko interesa dutenei ere egin ahal izango die bileran parte hartzeko deia
3. Deialdia idatziz egingo da eta gutxienez bilkura baino hiru egun lehenago. Bileraren gai-zerrenda, eguna, ordua eta lekua zehaztu beharko dira. Larrialdirik izanez gero, hiru egun baino geroago ere deitu ahal izango da, baina aktan jaso beharko da hori.
4. Deialdian beti bileraren gai-zerrenda agertuko da, eta horren inguruan behar den informazioa ere eskaini beharko da, behar den bezala laburtuta eta prestatuta.

### 13. Artikulua - Bileren garapena

1. Kontseiluaren bilera balioduna izateko, ezinbestekoa izango da kideen erdia baino gehiago bertan egotea.
2. Kontseilu Errektoreko kideek derrigorrez joan behar dute bilera guztietara, arrazoitutako justifikaziorik ez badago tartean. Kontseilariak ezin dute ordezkorik bidali; eurek joan behar dute bileretara.
3. Erabakiak hartzeko, nahitaezkoa izango da boto baliodunen erdia baino gehiago lortzea, indarrean dagoen legerian aurreikusitako suposamenduetan izan ezik. Kontseilukide bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak berdinketak erabakitzeko balio izango du.

4. Kontseilu Errektoreko Kideak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta beraien Egokitasuna baloratzeko, Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta haien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozeduraren Gidaliburuak aurreikusitakoa hartuko da aintzat.
5. Bilera-aktetan eztabaiden laburpenak, erabakien testuak eta bozketen emaitzak jasoko dira, eta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte.
6. Lehendakariak zuzenduko du eztabaida, eta kontseilari guztien parte-hartzea bultzatuko du.

## **VI. TITULUA - Kontseilariak izendatu eta kargua uztea**

### **14. Artikulua - Kontseilariak izendatu**

Batzar Nagusiak izendatuko ditu kontseilariak, Kreditu Kooperatiben Legean, bera garatzeko xedapenetan, kooperatiben legeria orokorrean eta Estatutuetan aurreikusitakoarekin bat.

### **15. Artikulua - Kontseilariak hautatu**

Kontseilu Errektoreak, bere eskumenen esparruan eta Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta haien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozeduraren Gidaliburuari lotuta, proposatutako hautagaiek Gidaliburu horretan jasotako baldintzak betetzen dituztela zainduko du.

Gidaliburu horretan eskatutakoari kalterik eragin gabe eta horren era osagarrian, honako hauek ezin izango dira kontseilaritzat proposatu edo aukeratu:

- a. Kooperatibaren jarduerekin zerikusia duten eginkizunak dituzten Administrazio Publikoetako goi-karguak eta gainerako langileak, betiere ez badira, hain zuzen, lan egiten duten Erakunde Publikoaren ordezkariak.
- b. Batzar Nagusiaren baimenik gabe Kooperatibarekiko lehiakorrak edo osagarriak diren jarduerak eurentzat edo beste batzuentzat gauzatzen dituztenak.
- c. Adinez txikiak eta 65 urtetik gorakoak.

- d. Kitatu gabeko porrotak eta zorrak dituztenak, legeak gaitasunik gabe utzi dituenak, kargu publikoetarako gaitasuna kenduta daudenak, lege edo gizarte-xedapenetan hutsegite larriak eta, batik bat, jabetzaren kontrako delituak egin izanaren ondoriozko zigorrak dituztenak, eta azkenik, diziplina-espedientez kreditu-entitateetako kontseilari eta zuzendari izateko gaitasuna kenduta dutenak.
- e. Beste kreditu-entitate batzuetako kontseilariak, administratzaileak eta goi-zuzendariak, kapital sozialean parte hartzen dutenak izan ezik.
- f. Lau kreditu-erakunde baino gehiagotako Administrazio Kontseilukide direnak. Ondorio horretarako, ez dira kontuan hartuko kreditu-entitateetako administrazio-kontseiluetako karguak, baldin eta interesatuak, ezkontideak edo aurrekoek edo ondorengoek, batera zein banaka, kapital soziala Administrazio Kontseiluko bokalkopuruaz zatituz ateratako zenbatekoa baino akzio gehiagoren jabe badira.
- g. Beren kabuz edo beste norbaiten edo entitate baten izenean gure Entitatearekin mugaeguneratutako zor galdagarriak dituztenak, edo karguan daudela Kooperatibarekin hartuta zeuzkaten betebeharrak bete ez dituztenak.

## **16. Artikulua - Kontseilariak berraukeratu**

Kontseilariak berriz aukeratu ahal izango dira.

Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari kontseilariak berriz aukeratzeko proposamena eginez gero, Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta haien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozeduraren Gidaliburuan aurreikusitakoa errespetatu beharko da.

## **17. Artikulua - Karguaren iraunaldia**

Kontseilu Errektoreko kideak lau urterako aukeratzen dira, baina ezin dute karguan jarraitu 65 urte bete ondoren. Bi urterik behin kontseilarien erdiak berrituko dira.

Era berean, kontseilari independenteek ezin izango dute karguan iraun 12 urte baino gehiago.

Kontseilu Errektoreko posturen bat behin betiko hutsik geratuz gero eta hutsune hori betetzeko ordezkorik ez badago, ordezkatu den kideari Estatutuen arabera betetzeko falta zitzaion denbora iraungo du Batzarrak leku huts hori betetzeko aukeratutako kontseilariak.

## 18. Artikulua - Kontseilariak kargua uztea

1. Agintaldia amaitzen duten edo beste edozein arrazoiengatik agintaldia amaitu aurretik kargua uzten duten kontseilariak beren karguan jarraituko dute, harik eta haiek ordezteko titular gisa aukeratutako pertsonak kargua hartu arte. Espainiako Bankuaren egokitasun-balorazioa gainditzen dutenean hartuko dute kargua, eta erakunde horren Goi Mailako Karguen Erregistroak kontseilari berriak inskribatu direla jakinarazten duenean edo une oro indarrean dagoen araudiaren arabera egokia denean.

Jakinazpen horiek banan-banan egingo balira, ordezkapenak ere banaka egingo lirateke, kargua utzi behar duten kontseilarien adinaren arabera; lehenengo, kontseilari zaharrenek utziko dute kargua, eta gero, gazteenek.

Batzar Nagusiak titular gisa aukeratutako kontseilariaren batek Espainiako Bankuaren egokitasun-balorazioa gaindituko ez balu, ordezko gisa aukeratutako guztiak baloratu beharko ditu organismo horrek, Batzar Nagusiak aukeratutako ordenaren arabera. Ordezko horiek Espainiako Bankuaren egokitasun-balorazioa gainditu eta Goi Mailako Karguen Erregistroan inskribatu arte, kargua utzi behar duten kontseilariak beren karguetan jarraituko dute, adin txikienetik handienera.

Ordezkapen-prozesu guztietan, eta ordezkapen horiek egiteko ordenan (lehenago adierazitakoaren arabera), estatutu-araudia errespetatu behar da; alegia, titularrak eta ordezkoak mailaren (bazkideak, langileak eta gainerakoak) arabera aukeratzeko dira, eta beraz, maila bakoitzeko ordezkoek beren mailako titularrak soilik ordeztu ditzakete.

2. Honako kasu hauetan, kontseilariak beren kargua Kontseilu Errektorearen esku utzi eta, Kontseiluak egoki iritziz gero, dimisioa formalizatuko dute:
  - Legez aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-suposamenduren batean badaude.
  - Ustez legez kanpokoak izan litekeen delituen batengatik auzipetuta badaude, edota gainbegiratze-agintariak hutsegite larri edo oso larri baten ondoriozko diziplina-espeditentea ireki badute haien aurka.
  - Kontseilari-betebeharrak urratzeagatik, eta prozedura egokiaren ondoren, Kontseiluak berak zentzarazpena egin badie.

- Kontseiluan egoteak Kooperatibaren interesak arriskuan jartzen baditu, Kontseiluaren funtzionamenduan eragin negatiboa badu, Sozietateak merkatuan duen izen ona eta sinesgarritasuna kaltetzen badu, edota izendatzeko arrazoiak desagertzen badira.
- Kooperatibarekin izan ditzakeen harreman komertzialean jardunbide desegokiak antzematen badira, dela jokabidean, dela kreditu-eragiketen gestioan, dela beste edozeinetan, Kooperatibaren izen ona, irudi publikoa edo interesak kaltetzeko moduan.

Sortutako egoera baten ondorioz, Araudi honetako 15. artikuluan aurreikusitako egoeretakoren batean badaude.

- Kontseilu Errektoreak bertako kide izateko desegokitasuna onartzen badu.

## **19. Artikulua - Bozketen objektibotasuna eta sekretua**

Izendatzeko, berriz aukeratzeko edo kargua uzteko proposamenetan ukitutako kontseilariak ez dute parte hartuko proposamen horien inguruko eztabaida eta bozketetan.

Edozein kidek hala eskatuta, kontseilarien izendapenari, berraukeratzeari edo kargugabetzeari lotutako bozketa guztiak sekretuak izango dira.

## **VII. TITULUA - KONTSEILARIAREN INFORMAZIOA**

### **20. Artikulua - Informatu eta aztertze gaitasunak**

1. Kontseilariak Kooperatibaren edozein alderdiri buruzko informazioa izateko ahalmen zabalak ditu: sozietatearen eragiketei buruzko liburuak, erregistroak, agiriak eta gainerako aurrekariak aztertu eta instalazio guztiak bisitatzeko ahalmena du. Hala balitz, informazioa jasotzeko eskubidea Kooperatibaren enpresa filialetara ere hedatzen da.
2. Kooperatibaren ohiko gestioa ez tratatzearen, informazioa jasotzeko ahalmena Kontseilu Errektoreko Lehendakariaren, Lehendakariordearen edo Idazkariaren bidez gauzatuko da. Beraiek jasoko dituzte kontseilariaren eskaerak eta zuzenean emango diote informazioa, antolakundean dagokion mailako mintzakide egokiak eskainiko dizkiete, edota nahi dituen azterketa-jarduerak in situ burutzeko neurriak

ezarriko dituzte.

## **21. Artikulua - Adituen aholkularitza**

1. Egoera berezien ondorioz beharrezkoa denean, kontseilarien eginkizunak burutzeko aholkuak jaso ahal izateko, kanpoko adituak kontratatzeko edo barruko adituen zerbitzuak eskuratzeko eskatu ahal izango diote Kontseilu Errektoreari. Horrela, kargua betetzean ager litezkeen garrantzizko arazo zehatz eta zailei buruzko aholkua jaso ahal izango dute.
2. Kontratatzeko erabakia Kooperatibako Lehendakariari jakinarazi behar zaio, eta Kontseilu Errektoreak gehiengo soilez debekatzeko aukera izango du, honako hauek egiaztatuz gero:
  - kontseilariaren eginkizunak egoki betetzeko beharrezkoa ez dela; edo
  - arazoaren garrantzia nahiz Kooperatibaren aktiboen eta sarrerak ikusita, gehiegizko kostua duela; edo
  - Eskatutako laguntza teknikoa Kooperatibako aditu eta teknikariek egoki eskain dezaketela.

## **VIII. TITULUA - KONTSEILARIAREN ORDAINSARIA**

### **22. Artikulua - Kontseilariaren ordainsaria**

1. Kontseilu Errektoreko kideei gestio zuzeneko lanak gauzatzen dituztenean ordainduko zaie, eta zenbatekoa lan-bazkideentzat ezarritako ordainsari-mailen araberakoa izango da. Dena den, beren funtzioak betetzerakoan dituzten gastuak ordaindu egingo zaizkie.
2. Karguak eskatutako dedikazioaren ondorioz, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari kideren batentzako ordainsaria ezartzea proposatuz gero, ordainsaria zentzuzkoa izaten ahaleginduko da.

3. Kontseilari bakoitzaren ordainsaria guztiz gardena izango da.

## **IX. TITULUA - KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK**

### **23. Artikulua - Kontseilariaren betebeharrak orokorrak**

1. Araudi honetan ezarritakoarekin bat, Kooperatibaren xede soziala betetzeko haren gestioa bideratu eta kontrolatzea da kontseilariaren eginkizuna.
2. Eginkizunak gauzatzean, kontseilariak enpresari txukunaren eta ordezkari leialaren arduraz jokatuko du, eta honako hauek egin beharko ditu, bereziki:
  - Kontseiluaren eta partaide den organo ordezkarien bileretarako informazioa jaso eta egoki prestatzea.
  - Partaide den organoetako bileretara joan eta deliberazioetan parte-hartze aktiboa izatea, beraren irizpidearen bidez erabakiak hartzen laguntzeko.
  - Kontseilu Errektoreak agindu eta beraren dedikazio-konpromisoan zentzuz sartzen den beste edozein eginkizun zehatz burutzea.
  - Kontseilu Errektoreari Kooperatibaren gestioan gertatu eta berak jakin duen edozein irregulartasunen berri ematea, eta edozein arrisku-egoera zaintzea. Horretarako, hurrengo bilerako gai-zerrendan behar diren gaiak sartzeaz arduratu edota horretarako bilera berezi bat deituko du.
  - Deialdia egiteko ahalmena duten pertsonen bileren bileren berezi bat deitzeko edo hurrengo bileraren gai-zerrendan bere ustez txertatu behar diren gaiak jartzeko esatea.

### **24. Artikulua - Kontseilariaren konfidentzialtasun-betebeharra**

1. Kontseilariak sekretupean gordeko ditu Kontseilu Errektorearen eta partaide den organoetako deliberazioak eta, oro har, ez du emango karguaren ondorioz eskuratu dituen informazioen berri. Sekretu hori urratzea oso hutsegite larritzat eta kargugabetzeko arrazoitzat joko da, egon litezkeen beste erantzukizunei kalterik eragin gabe.
2. Sekretua mantentzeko betebeharra iraunkorra da eta, beraz, edozein arrazoi dela eta kontseilariak kargua utzi eta gero ere gorde beharko da, batez ere Kooperatibaren antzeko xede soziala duen beste erakunde baterako zerbitzuak

eskaintzen hasiz gero.

## **25. Artikulua - Lehiarik ez egitearen betebeharra**

Kontseilariak ezin dio zerbitzu profesionalik eskaini zati batean nahiz osorik Kooperatibaren xede sozial berbera edo antzekoa duen erakunde bati. Betebehar horretatik kanpo geldituko dira taldeko beste sozietate batzuetan bete litezkeen karguak.

## **26. Artikulua - Interes-gatazka**

Baliogabeak izango dira Kooperatibaren xede sozialari lotutako zerbitzuak eskaintzearekin zerikusirik ez duten hitzarmenak eta betebeharrak, Kontseilu Errektoreko edo Zuzendaritza Nagusiko kideen edo euren ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senideen alde egindakoak, baldin eta aurretiaz Batzar Nagusiaren baimena jaso ez bada. Interes-gatazka duten pertsonak ez dute Batzarraren bozketa horretan parte hartuko.

Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Nagusiko kideen, edo aurreko atalean zehaztutako mailarainoko euren senideen aldeko eragiketen eta zerbitzu kooperatibizatuen inguruko erabakiak hartzen direnean, Kontseilu Errektorean bozketa sekretua erabiliko da ezinbestez. Aurretiaz, gaia argi eta garbi azaldu beharko da gai-zerrendan, eta kontseilari guztien bi hereneko gehiengoz ebatzi beharko da.

Eragiketaren edo zerbitzuaren onuraduna kontseilaria edo lehen adierazi den ahaideren bat bada, interes-gatazka dagoela ulertuko da eta ezin izango du bozketan parte hartu.

Ezkutuko bozketa egin eta emaitza ezagutzera eman ondoren, hartutako erabaki horri buruzko desadostasunak edo zuhurtziak aktan agerrarazi ahal izango dira.

Baldintza horiexek bete beharko dira, halaber, Entitateak beste erakunde batzuekiko hainbat obligazio edo eskubide eratu, indartu, aldatu, berritu edo baliogabetu behar dituztenean ere, baldin eta karguok edo haien senideak erakunde horietan nagusiak, kontseilariak, administratzaileak, goi-zuzendariak, aholkulariak edo oinarritzko kideak (% 5eko edo hortik gorako kapitaleko partaidetzarekin) badira.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoari kalterik eragin gabe, eta Kontseilu Errektoreko kideen egokitasuna baloratzeko ondorioetarako, Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta haien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozeduraren Gidaliburuan jasotako gatazka-interesaren definizioari erreparatuko zaio.



## **27. Artikulua - Aktibo sozialen erabilera**

Kontseilariak ezingo dute Kooperatibaren aktiborik erabili eta ezingo dute Kooperatiban duten posizioa baliatu euren ondarean abantaila eskuratzeko, ez bada kontraprestazio egokia ordaindu dutela.

## **28. Artikulua - Publikoa ez den informazioa**

Kontseilariak ezin izango dute publikoa ez den Kooperatibari buruzko informazioa erabili asmo pribatuetarako.

## **29. Artikulua - Negozio-aukerak**

Kontseilariak ezin du Kooperatibaren negozio-aukerarik aprobetxatu, ez beraren eta ez senitartekoren baten onerako, ez bada aurretiaz Kooperatibari eskaini eta horrek ustiatzeari uko egin diola, eta gainera Kontseiluak negozio-aukera hori aprobetxatzeko baimena eman diola.

Aurreko atalean jasotakoaren ondorioetarako, negozio-aukeratzat jotzen da inbertsio edo eragiketa komertziala egiteko edozein aukera, baldin eta kontseilariak karguari lotuta sortu edo jakin badu, Kooperatibaren informazioa edo bideak erabiliz eskuratu badu, edota hirugarrenaren eskaintza Kooperatibari zuzenduta zegoela pentsatzeko arrazoi nahikoa badago.

## **30. Artikulua - Zeharkako eragiketak**

Kontseilariak Kooperatibarekiko leialtasunaren betebeharra urratuko du baldin eta, aurretiaz jakinik, beren senitartekoen edo zuzendaritza postu edo partaidetza garrantzitsua duen enpresaren edo erakunderen baten eragiketak baimendu edo horien berri ematen ez badu, aurreko artikuluetan aurreikusitako baldintza eta kontrolak bete gabe.

## **31. Artikulua - Kontseilariaren informatzeko betebeharra**

Kontseilariak beste Kooperatiba edo erakunde batzuetan betetzen dituen karguen, jardueren eta, oro har, Kooperatibako administratzaile jardunean eragin garrantzitsua izan dezakeen edozein gertakizun edo egoeraren berri eman beharko dio Kooperatibari. Bereziki, Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Aukeratu eta haien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozeduraren Gidaliburuan jasota dauden eta

Kontseilu Errektoreko kide izateko egokitasuna baloratzean eragina izan dezaketen faktore guztien berri eman beharko du.

### **32. Artikulua - Gardentasun-printzipioa**

Kontseilu Errektoreak urteko informazio publikoan argitaratuko du Kooperatibak bere kontseilariekin eta sozietate partaidetuekin egindako eragiketen laburpena. Informazioak eragiketen bolumen globala eta eragiketarik garrantzitsuenen izaera jasoko du.

### **33. Artikulua - Kontseilarien erantzukizuna**

Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizuna Sozietate Anonimoetako administratzaileentzat xedatutakoarekin bat etorriko da.

Zentzu horretan, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

1. Kontseilariak Kooperatibaren, bazkideen eta hartzekodun sozialen aurrean erantzun beharko dute baldin eta legearen edo Estatutuen aurkako ekintzen ondorioz kalterik eragiten badute, edota karguan behar den arduraz ez jokatzegatik kalterik eragiten badute.
2. Erabaki edo ekintza kaltegarria onartu edo egin zuen Kontseilu Errektoreko kide guztiek solidarioki erantzungo dute, ez bada kontseilukideren batek erabaki hori hartu eta gauzatzean parte hartu ez eta horren berri ez zuela egiaztatzen duela, edota hori ezagututa, kaltea saihesteko ahal zuten guztia egin edo berariaz aurka agertu zela.
3. Ez du inolaz erantzukizuna arinduko Batzar Nagusiak erabaki edo egintza kaltegarria onartu, baimendu edo berretsi izanak.

## **X. TÍTULUA - KONTSEILUAREN HARREMANAK**

### **34. Artikulua - Harremanak bazkideekin**

Bazkideek Kooperatibaren gestioaren harira egin litzaketen proposamenak ezagutzeko bide egokiak zehaztuko ditu Kontseilu Errektoreak.

Bazkideek Batzar Nagusietan parte-hartze informatua izatea bultzatuko du Kontseilu

Errektoreak, eta Bazkideen Batzar Nagusiak Legearen eta Estatutu sozialen arabera dagozkion betekizunak egoki betetzeko behar diren neurriak zehaztuko ditu.

Bereziki, honako neurri hauek hartuko ditu Kontseilu Errektoreak:

- Batzarra izan aurretik, bazkideei legez dagokien informazio guztia eskaintzen ahaleginduko da. Ildo beretik, legeak aginduta egon ez arren, bazkideentzat interesekoa den eta arrazoiz eman dakiekeen informazioa ere ematen ahaleginduko da.
- Batzarraren aurretik bazkideek eskatutako informazioa prestutasunez eskainiko du.
- Prestutasun berberaz erantzungo die Batzar Nagusiaren harira bazkideek egin litzaketen galderei.

### **35. Artikulua - Harremanak publiko zabalarekin**

Publiko zabalarentzako urteko informazio finantzarioa, sei hilean behin edo hiru hilean behin egin litekeena, edota, hala balitz, zuhurtziak publiko zabalaren esku uztea eskatzen duen informazio guztia prestatzean, urteko kontuak prestatzeko erabiltzen diren printzipio, irizpide eta jardunbide profesional berberak erabiliko direla ziurtatzeko neurriak ezarriko ditu Kontseilu Errektoreak, azken horiek urteko kontuen fidagarritasun berbera izateko moduan.

Urteko dokumentazio publikoan, Kooperatibaren gobernu-arauei eta Gobernu Egokiaren Araudiaren betetze-mailari buruzko informazioa txertatuko du Kontseilu Errektoreak.

### **36. Artikulua - Harremanak ikuskatzaileekin**

Kontseilu Errektoreak ez du ikuskaritza-enpresarik kontratatuko baldin eta kontzeptu guztiengatik ordaindu beharreko saria azken ekitaldiko sarrera guztien ehuneko bostetik gorakoa bada.

Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari jakinaraziko dio Kooperatibak zenbat ordaindu dion ikuskaritza-enpresari guztira, ikuskaritzaz bestelako zerbitzuen truke.

Kontseilu Errektoreak kontuak formulatzen dituenean, kontu egingo du ikuskatzaileak salbuespenik egiteko aukerarik egon ez dadin. Dena den, Kontseiluak bere irizpideari eutsi behar diola erabakitzen duenean, publikoki azalduko du bere desadostasunaren edukia eta norainokoa.

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito  
DOM. SOCIAL: Paseo José María Arizmendiarieta s/n.  
Arrasate (Gipuzkoa)

---

-----

## 11.2.d) artikulua eranskina

### IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOA

	Izen-abizenak	Kargua	Sailkapena
1	Txomin García Hernández	Kontseilu Errektoreko Lehendakaria	GB
2	Roberto Ruiz de Infante Aguirre	Kontseilu Errektoreko Lehendakariordea	GB
3	Iñaki Josu Goñi Gabilondo	Kontseilu Errektoreko Idazkaria	LB
4	José María Balzategui Juldain	Kontseilu Errektoreko kidea	GB
5	Ainhoa Gallastegui Martínez	Kontseilu Errektoreko kidea	LB
6	José Luis García García	Kontseilu Errektoreko kidea	LB
7	Rafael Idigoras Alberdi	Kontseilu Errektoreko kidea	GB
8	María Carmen Inurria Landeras	Kontseilu Errektoreko kidea	GB
9	Javier Oleaga Mendiach	Kontseilu Errektoreko kidea	GB
10	Iñaki Peña Gómez	Kontseilu Errektoreko kidea	LB
11	Adolfo Plaza Izaguirre	Kontseilu Errektoreko kidea	LB
12	José Javier Saenz de Buruaga Gabilondo	Kontseilu Errektoreko kidea	GB
13	Luis M <sup>a</sup> Ugarte Azpiri	Kontseilu Errektoreko kidea	GB
14	Elena Zárraga Bilbao	Kontseilu Errektoreko kidea	GB
15	Julio Gallastegui Zubizarreta	Zuzendari Nagusia	ZK
16	Carlos Osés Irulegui	Zuzendari Nagusi Ondokoa - Partikularren Areako Zuzendaria	ZK
17	Nuria Aguirre Unzueta	Gestio Sozialeko Zuzendaria	ZK
18	Xabier Eguibar Gainza	Negozio Garapenaren Areako Zuzendaria	ZK
19	José Antonio Unanue Etxeberria	Finantza Areako Zuzendaria	ZK
20	Alfredo Zabaleta Barredo	Arriskuen Areako Zuzendaria	ZK
21	Josu Arraiza Martínez de Lagran	Enpresen Areako Zuzendaria	ZK
22	Román Aguirre Beitia	Baliabideen Areako Zuzendaria	ZK
23	Oscar Eguskita Sierrasesumaga	Bezeroen Arriskuen Departamentuko Zuzendaria	ZK
24	Urtzi Mezkorta Armaolea	Barne-Ikuskaritzako Zuzendaria	KE
25	Aitor García Santamaría	Caja Laboral Gestión-eko Zuzendaria	CLG
26	Jon Emaldi Abasolo	Caja Laboral Gestión-eko Administrazio-Kontseiluko Idazkaria	CLG

**Sailkapenerako inizialak:**

ZK Zuzendaritza Kontseilua  
 GB Gainerako Bazkideak  
 LB Lan-bazkideak  
 KE Kontrol Eginkizuna  
 CLG Caja Laboral Gestión